

BERRIAK BERRI

Anoetako
aldizkari informatiboa
76 zenb.
2022ko martxoa



HERRIKO AUZOKONPOSTAGAILUAK BERRITU DITUGU

Sortzen dugun organikoaren %27an herrian konpostatzen dugu eta lortutako konpostarekin herriko lorategiak engarritzen ditugu.

EUSKARAREN PILULA

ERDARAKADAK

Euskaraz ari garenean, askotan erabiltzen ditugu gaztelaniatik hartutako hitzak eta espresioak, euskarazko espresio jatorrak baztertuta. Hemen dituzue horietako batzuk:

1. *Sindikatu guztiek greba **batera** deitu dute.*
2. *Ez du **pena merezi** horregatik haserretzea.*
3. *Besterik gabe, **agurtzen naiz**.*
4. *Biharko bileran **ikusiko gara**.*
5. *Realak galdu egin zuen, oso ondo **jolastu** arren.*

HONELA HOBETO:

1. Gaztelaniazko "convocar una huelga" espresioaren kalkoa da. Euskaraz *bat* zenbatzailea da, eta *bi* edo *hiru*-rengatik bereizteko erabili behar da, bestela, ez da beharrezkoa. Goiko esaldia honela esango dugu:

*Sindikatu guztiek **grebara** deitu dute.*

2. *Pena hori sobran dago euskaraz, beraz, honela esan beharko genuke:*

Ez du merezi horregatik haserretzea.

3. Gutunen amaieretan askotan ikusten dugun "me despido" espresioaren parekoa da "agurtzen naiz", baina euskara jatorrean honela esango dugu:

*Besterik gabe, **agur**.*

*Besterik gabe, **agurtzen zaitut**.*

4. Hau ere gaztelaniazko "nos vemos" esamol-detik hartua. Euskaraz esateko modu zuzena hau da:

*Biharko bileran **ikusiko dugu elkar**.*

5. Kirola denean, edo lehia adierazi nahi denean, euskaraz *jokatu* erabiltzen dugu (pilotan, futboleak, musean...), eta *jolastu* umeek egiten dutenari deitzen diogu, adibidez, parkean jolastu. Beraz...

*Realak galdu egin zuen, oso ondo **jokatu** arren.*

BIZTANLEAK

	EMAKUMEAK	GIZONEZKOAK	GUZTIRA
BIZTANLEAK (otsailak 16)	1.023	1.071	2.094
JAIOITZAK (urriaren 25etik otsailaren 16ra)	Nahia, Izadi Norsin, Yahfdu Jana Karissa	Oinatz	6
HERIOTZAK (urriaren 25etik otsailaren 16ra)	Francisca M ^a Jesus	Bartolome	3

INGURUMENA



AUZOKONPOSTA

Auzokonposta gunak berritu ditugu. 2013. Urtean proiektua martxan jarri zenetik, egurrezko etxoletan egiten genuen konposta, baina oraingoan, Vermican enpresaren plastiko birziklatuzko konpostagailuak jarri dira: 34.000 €-ko inbertsioa egin da.

Ditugun kalkuluen arabera, Anoetako 252 familiak egiten dute konposta herrian. Horietatik %75ak herriko auzokonpostaguneetan hartzen du parte eta beste %25ak landa eremuko bakarkako konpostagailuetan:

- **Urtean 56.000 kilo herrian konpostatzen dira.**
- **Sortzen dugun organiko guztiaren %27a herrian geratzen da.**
- **Organiko kilo hauek tratamendu zentro batean tratatzeak 8.622 €-ko gastua luke.**

Klima larrialdiaren garai hauetan ezinbestekoa da trantsizio ekologikorao ekimenak bultzatzea. Ekonomia zirkularraren eredu argienetako dugu herriko konpostaren proiektua:

- **Herriko zuhaitzen adarrak txikitu eta konposterako egituratzailea lortzen dugu**
- **Organikoa konpost bihurtzen dugu.**
- **Herriko lorategiak ongarritzeko erabiltzen dugu.**

Datozen hilabeteetan ere, proiektu hau indartzeko hainbat ekimen egitea aurreikusten da. Besteak beste, datozen urteetan herrian konpostatzen den organikoa zenbat gehiago ugaritu daitekeen aztertuko da eta sentsibilizazio ekin-tzak ere egingo dira.

Oraindik erabiltzailea ez den herritarren batek interesik balu udaleko Ingurumen Sailarekin jarri daiteke harremanetan. Bertan azalduko zaizkio bakoitzari egokien datorkion konpostagunea eta jarraitu beharreko irizpideak.

HONDAKIN BILKETA

Pandemiagatik edukiontziak jarri bagenituen ere, errefusa kopurua izugarri ugaitu zenez, 2021eko martxoan, berriro ere, errefusa atez ate biltzera pasa ginen. Errefusa edukiontzi bidez jasotzen

genuenean %61-67ko gaikako bilketa datuak izan genituen. Baina, atez ate biltzen hasi garenetik, batz bestea, %75,27ko datuarekin amaitu dugu urtea.

2021									
Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua
%72,77	%73,44	%73,10	%75,94	%77,08	%79,25	%69	%75,67	%79,27	%77,32

*datu hauetan sartu gabe dago herrian konpostatzen den kopurua

Honez gainera, errefusa kopurua jaisteak hondakin bilketagatikoko gastua ere gutxitu egin du:

2020		2021	
Errefusa	143.624 kg/urtea	Errefusa	185.344 kg/urtea
Hondakin bilketa	203.841,24 €	Hondakin bilketa	188.228,33 €

Gaikako bilketaren datuak onak badira ere, oraindik badugu zer hobetua. Izan ere, auzo eta kale zenbaitetan lurrean utzitako poltsak ugariak dira. 2022. urtean ere hauek desagertzeko lanean jarraituko dugu.



HERRI BARATZAK

Urte hasierarako 8 lursail berri prestatu ditugu herri baratzetan. Aisialdi aktiboa bultzatu eta nekazaritza ekologikoan aritzeko gunea da herri baratzetako. Inork interesek izango balu, ingurumen sailean jaso lezake informazioa.



HILEKO OSASUNTUAREN INGURUKO KANPAINA

Hileko osasuntsuaren aldeko kanpaina bat abiatu zuen udalak abenduan, produktu alternatiboak sustatzeko hilekoaren odola jasotzeko, konpresa eta tanpoiaren orde. Hortaz, hilekorako produktu alternatiboak banatu zituen doan plazan abenduaren 18an.

HAINBAT DATU INTERESGARRI

- Emakume* batek 500-520 hileko-ziklo izanen ditu eta ziklo bakoitzean 18 tanpoi edo konpresa erabiltzen dira, gutxi gorabehera. Hau da, urtean 234.
- Urtean emakume* bakoitzak 6 kg hondakin sortzen du.
- Gaizki deituriko "herrialde aberatsok" munduko biztanleriaren % 16a garen arren, munduko hondakinen % 34a sortzen dugu.
- Plastikoetan fokua jartzea ezinbestekoa da arazoaren muina ulertzeko. Ez badira behar bezala jasotzen eta kudeatzen, munduko ur-baliabideak eta ekosistemak kutsatuko dituzte milaka urtez. Ikerketen arabera, 2016an 242 milioi tona hondakin sortu ziren: hondakin solidoen % 12a.
- Tampax enpresak jakinarazi egin behar izan zituen tanpoiak eta konpresak egiteko erabiltzen zituen osagaiak. Horien artean kotoia, rayona (zelulosa oinarri duen zuntz artifiziala) eta poliester edo polipropilenoa.
- Tanpoiak eta konpresak egiteko erabiltzen den kotoiak eta rayonak bakteriak ugaritzeko ingurune ezin hobea sortzen dute.
- Toxikoak diren material sintetikoak erabiltzen dira: agente aglutinatzaileak, plastikoak, tentsio-aktiboak, erretxinak eta lurrinak... Zuritzeko kloroa eta lixiba erabiltzen dira.
- Bartzelonako HospitalClinic-ek eginiko ikerketa baten arabera, tanpoi eta behin erabiltzeko konpresetako dioxinek erlazioa dute endometriosi kasuekin.



Menstruazio-pobrezia datuetan:

- Munduko emakumeen %12k du merkaturatutako odola jasotzeko produktuak erosteko aukera (Compassion UK, 2019).
- Munduko heren batek ez du komunik edo eskuak garbitzeko konketarik etxean edo etxetik gertu, UNICEFen datuen arabera.
- Espainiar estatuan egindako inkesta baten arabera, %11,6ak komuneko papera erabiltzen du eta %4,3ak pixoihalak erabiltzen ditu odola jasotzeko (Idiapjgol, 2020). Galdeketa parte hartutakoen %71,4ak oso garestiak direla uste du.
- Hamarretik bik zailtasunak izan ditu noizbait odola jasotzeko produktuak erosteko.

Zure osasunagatik eta ingurumen osasunagatik, anima zaitetz hileko kopa erabiltzen! Edo bestela konpresa berrerabilgarriak edo hileko kuleroak.

Tailer teoriko-praktikoa jarri nahi dugu martxan, erabilerari buruzko azalpenak emateko eta zalantzak argitzeko. Izen-emateak kultura@anoeta.eus helbidean.

**ZATOZ UDALETXERA
ZURE KOPA, KULERO EDO
KONPRESA JASOTZERA!**

PAREKIDETASUNA



*Emakumeentzako
ahalduntze ikastaroak
udaberrian*

ETXEKO BRIKOLAJEA

Martxoak 26 eta apirilak 2,
larunbatak 09:30-13:30

MINDFULNESS

Martxoak 25, apirilak 1, 8, 29,
maiatzak 6, 13, 20, 27 17:30-19:00

AUTOESTIMA ETA KONFIANTZA

Ekainak 7, 14, 21, 28, astearteak
18:00-20:00

**IZEN-EMATEAK: kultura@anoeta.eus
martxoaren 7tik 17ra (brikolajea eta mindfulness)
maiatzaren 9tik 19ra (autoestima eta konfiantza)**

IKASTAROAK ANTOLATZEKO 8 PARTAIDE GUTXIENEZ

GIZARTE ZERBITZUAK

Estimulazio tailerra martxan

Anoetako Udaleko Gizarte-Zerbitzuen sailak, berriro ere estimulazio-tailerra jarri du martxan. Tailerra 65 urtetik gorako herritarrei zuzendua dago eta asteen behin (ostegunetan) Alkartasuna Biltokiko lokalean egiten dute 18:15etik 19:45era. Ikastaroa otsailetik ekainera bitarte izango da. Arreta zein oroimena lantzeko ariketak, eskulak eta irakurketa lantzeko ariketak egingo dituzte, besteak beste.

Izena emateko gizarte zerbitzuetan 09:00etatik 13:00etara edo 943 56 92 13 telefonoan edo gizarte@anoeta.eus helbidean.



LOATZO



Kalderero festan giro bikaina!

Otsailaren 18n ihauteriak iragartzeko Kaldereroak ospatu genituen Anoeta eta Iruran. Loatzo Musika Eskolako ikasleek osaturiko txarangaz lagundurik Kaldereroen konpartsa Anoetako plaza-tik abiatu zen eta herria zeharkatu eta gero Iruran sartu eta bertako plazan



eman genion bukaera festari. Guraso talde batek karroza ikusgarria prestatu zuen. Ederra da auzolana! Anoetako eta Irurako Udalek eskainitako txorixo pintxoak gustura jan genituen. Pozgarria izan da berriz ere kalean musika joz eta kantatuz ibiltzea.

ALBISTE LABURRAK



GAZTELEKUKO MURALA

Eusko Jaurlaritzak diru-laguntza bat eman dio Ikertze Kultur Elkarteari bizikidetzari buruzko mural bat egiteko Anoetan, parte-hartze prozesuen bidez.

Aurreko urteotan ere diru-laguntza hori jaso du, eta horrekin egin dira muralak kiroldegiko eta auditorioko paretetan, San Juan kalean, hilerrian...

Aurten barruko paretak margotu zituzten aza-roan, Janire Calleja anoetarraren gidaritzapean. Gaztelekuko 66 erabiltzailek hartu zuten parte prozesuan, 35 neska eta 31 mutil. Eusko Jaurlaritzak 2.800 euro eman dio Ikertze Elkarteari, eta, beraz, Udalak 1.500 € soilik jarri behar izan ditu.



MUGARRIAK BASAGAINEN

Eusko Jaurlaritzak diru-laguntza eman zion Anoetako Udalari mugarriak jartzeko Basagainen, Burdin Aroko herrixkaren inguruko 10. metroko perimetroa babesteko. Hortaz, 29 mugarri jarri genituen abenduan, desbrozaketa lanak egin ondoren.

12.728,10 euroko gastua ekarri du honek, eta Eusko Jaurlaritzak emandako diru-laguntza 10.171 eurokoa da. Beraz, Udalak 2.557,10 € jarri behar izan ditu.

Anoetako Udalak hiru parte hartze prozesu ditu martxan. Batetik, Hozpel, Isasti eta Etxaburu kaleetako eta bestetik, Errotalde auzokoa. Udalak kale hauetako hodi-terriak aldatu eta irisgarritasuna hobetzeko proiektua egin nahi du, baina horretan hasi aurretik bizilagunen iritzia biltzeko bi bile-
ra egin dira. Hor atera diren ideiak kontuan izanda, aurreproiektua landutuko da.

Azkenik, Lasarbe inguruan aisialdi gune berri bat egiteko parte hartze prozesua ere martxan da. Prozesu honetan, OinHerri herri hezitzaileen filosofiarekin landuko da prozesua eta, beraz, herriko txikiene-tatik helduenetaraino, bakoitzak beretik, bere iritzia eman eta ikuspegi aniztasun horretatik egingo da gune berri honen proiektua.

UDALAK ABIATUTAKO PARTE HARTZE PROZESUAK



SENDABELARREN INGURUKO HITZALDIA ARRAKASTATSUA

Garbiñe Larrea Iturraldeak aurkeztu zuen "Sendabelarrek dakitena" liburua otsaila-
ren 15ean gela balioanitzean. Oso hitzaldi interesgarria eskaini zuen, sendabelarren ezaugarriak eta horien erabilera ardatz, eta bertaratutakoek ere beren galderak egite-
ko aukera izan zuten. Arrakasta handia izan zuen emanaldiak, 23 pertsona bertaratu ziren, emakumeak gehienak.



ODOLA EMATEKO HURRENGO HITZORDUAK

- Ekainak 6
- Urriak 17



KULTURA



AMARAUN

Ez aurreikusi dantza ikuskizun bat,

ez espero bertso emanaldi bat;

hau bidaia bat da.

Bidaia hipotetiko bat amatasunean zehar.

Bidean, gorputzak, ahotsak, dantza eta bertsoa

gurutztatu zaizkigu.

Eta amatasunak gurutztatu gaitu.

KORRONTZI

**Aita Marin ontziratu da
Mediterraneora bidean
bere azken proiektuan**

Bidaia musikala abiarazten dute urrutiko uretara, ontzi gainean beraien trikitixa tonuan jarritz. Portu bakoitzean istorioak eta doinuak biltzen dituzte, baita tradizioak eta kulturak ere, eta itxaropenez beteta dauden itsasontziaren sokak luzatzen dizkiete bizitza berri baten bila doazenei.

Aita Mari erreskate-ontziari laguntzeko ongintzazko kontzertua da hau.

Parte hartzen dute: Korrontzi, Oinkari Dantza Taldea...



XXI. mendeko hezkuntza



Hitzaldi interesgarria eskaini zuten Riedulab taldekoek XXI. mendeko hezkuntzaren inguruan. ikastolak aurrera daraman eraldaketa sakonean aholkularia da Riedulab. Saioaren laburpena ikastolako webgunean aurki daiteke.

Hizlariak lepoa luzatzeko gonbitea egin zuten. Egunerokoa momentu batez utzi eta pentsatu, haur bat 2 urterekin hasi eta 16 urterekin irte-ten da ikastolatik. Zertarako balia ditzakegu urte guzti hauek?

Nondik gatoz? Ezagutzen dugun hezkuntza-sistema XIX. mendearen amaieran diseinatu zen. Herrialde guztiek eredu bera garatu zuten, ikus-kerak eta praktika berdina. Helburua zehatza zen: landa-eremutik zetozen pertsonak, industriarako ekoizpen sisteman sartzeko formazioa jasotzea. Sormena eta irudimena ez ziren garrantzitsuak. Garrantzitsuena uniformizazioa zen.

Gure jatorriaz oso kontziente izan behar dugu. Hezkuntzak beti izan du forma bera, korridore bat eta ikasgela batzuk, eta kosta egiten zaigu beste era batera imajinatzea. Noski, ikasleak, espazio fisikoak, irakasleak izango ditu, baina zergatik izan behar du azken produktuak uniformizazioa?

Gure haurrek matematika guk ikasi genuen moduan ikasten badute, bada zerbait ongi ez doana; izan ere, ni bizi nintzen eta gure haurrek bizi diren eta biziko diren munduak desberdinak direlako zeharo.

Hezkuntzan nahi dugun iraultzaren xedea ez da uniformizazioa eta edukien transmisio hutsa, bizi dugun aro aldaketara egokitzeko euren onena ematen eta pertsona moduan garatuko diren esperientziak eskaintzea baizik. Eta ikastolaren helburu nagusia familiekin batera, pertsonak garatzeko eta hazteko espazioak sortzea izango balitz?



Hemen da 22. KORRIKA!

Martxoaren 31tik apirilaren 10era Euskal Herri osoa zeharkatuko du KORRIKAK, Amurriotik Donostiara. Ekimenak helburu bikoitza du: Batetik, euskararen aldeko kontzientzia indartzea eta bultzatzea, eta bestetik, AEK-ren euskaltegien eguneroko jarduna diruz laguntzea.

HITZEKIN da aurtengo leloa: hizkuntza bat hitze-kin osatzen da, baina ekimenek eraikitzen dute hizkuntza baten komunitatea. Euskarak aurrera egin nahi badu, euskaldun (pro)aktiboak behar ditu, konbentzimendutik ekintzara, praktikara jauzi egingo dutenak. Hitzetatik ekintzetara pasatzeko unea da.

Gurera etorritz, Korrika Anoetatik **apirilaren 8an pasako da, goizeko 10:19 aldera**. Prestaketan jarduteko, aurtengoan ere Korrika Batzordea

osatu dugu, eta asmoa da kilometroen erosketaren nondik norakoak zehazteaz gain, lasterketaren aitzakian zenbait ekitaldi antolatzea.

Gogora dezagun Korrika ekimen erraldoia eta jendetsua bada ere, norbanakoaren alea eta ekarpena beharrezkoak direla. Bakoitzaren ahalgin txiki horrek egiten gaitu erraldoi! Horregatik **Korrika Laguntzaile egin zaitezzen gonbidatu nahi zaitugu. 12 euroren truke**, eskualdeko zenbait dendatan deskontuak izango dituzu. Eta garrantzitsuena, KORRIKAREN parte izango zara, zure laguntzarekin egingo dugulako aurrera.

Datozen asteetan Korrika Laguntzaile egiteko aukera eskainiko dugu herrian, baita Korrika materiala erosteko aukera ere: arropa, pinak, pe-toak... Hortaz, izango duzue gure berri

Ikasle, ekin;
euskaldun, ekin;
erdaldun, ekin;
eragile, ekin;
agintari, ekin;
ekin ELKARREKIN.



Negu oparoa izan da gure elkartean



Abenduan kotxe karabanen saharar errefuxiatu kanpalekuetara joan ginen ibilgailuak eta material ezberdina eramatera. Tartean eskualdeko lagunak eta bi anoetar ere izan genituen. Bidaia luzea izan zen baina merezi izan zuen egun pare batean hango senide eta lagunak ikusteak. 40 bat ibilgailuz gain Covid-19 dela eta, azken udaretan etorri ez diren hurrei poltsak ere eman genizkien, baita hemengo ikastetxeetan hodeietan marraztutako mezuak ere.

Anoetako kasuan, Ikastolarekin elkarlanean, elkarteko kide bat gelara etorri zen sahararren egoeraren berri ematera, eta bide batez, LH4koen hodeiak eta LH6koen gutunak saharar eskoletara eramane zituen. Bueltan ere iritsi ziren saharar haurren marrazki eta gutunak eta LH4-5-6ko ikasleei banatu genizkien.

Urtarrilean berriz elikagai eta material bilketara egin dugu. Eskualdeko emaitzarekin oso

pozik gaude, 4.788 kilo eta konpresa eta pardel mordoa bildu baitira, aurreko bilketetako errekorra hautsiaz. Anoetako udaletxean eta batez ere Ikastolan elikagai pila bildu da eta hemendik eskerrak eman nahi dizkizuegu anoetarroi zuen aletxoa jartzeagatik!

Azkenik, negua amaitzeaz denean, elkartekoak udan begirada jarrita gaude, aurtan, azken bi urteetan ez bezala, OPORRAK BAKEAN bueltan baita! Irrikaz gaude haur sahararrak udan berriz ere gure etxe eta herrietan izateaz. Orain, ahalik eta haur gehien etor daitezen harrera familiak behar ditugu. Anoetan oraingoz familia bakarra daukagu. Eta zu? Animatuko al zara udako bi hilabeteetan haur saharar bat etxean hartzera?

Zuen zain gaude!



Lan Erreforma opari bat da patronalarentzat! Greba orokorra deitu behar da!



Otsailaren 3an PSOEek eta UPk CCOO, UGT eta CEOEko ordezkariekin adostutako Lan Erreforma, Madrilgo Diputatuen Kongresuak onartu du azkenean, Ciudadanos eta PRC bezalako eskuineko alderdiei esker.

PPren Lan Erreforma EZ da indargabetu. Yolanda Díaz Lan ministroak duela hilabete batzuk esan zuen 2012ko PPren legea indargabetuko zela, PSOEren eta UPren arteko Gobernu akordioak jasotzen zuen bezala, eta hitz horiek ezerezean geratu dira.

CEOEk akordioarekin agertu duen poztasuna, bote-re ekonomikoen eta eskuinaren ospakizun disimulatu gabeak, Aznarren eta Fatima Bañezen (2012ko lan erreforma bultzatu zuen Lan ministroa) eskaerak PPri abstenitu eta legearen onarpena bermatzeko, agerian uzten dute Gobernuaren propaganda eta gezurren kanpaina, batez ere UPko buruzagiana.

Akordioan CCOOko eta UGTko kideak inplikaturik egoteak, bake soziala sendotzeko etengabe traizio egiten dutenak, are nabarmenago uzten du iruzur hori.

Zalantzarik gabe, UPk eta Gobernu "progresistak" hitza jan duen kasu larrienetako baten aurrean gaude, eta hori argi dakite milaka ekintzailek eta sindikalistek zein langilariaren gehiengoak, gure soldatak hondoratu eta prekarietatea kronifikatu duen lan erreforma basatia jasan behar izan baitugu.



Greba orokorra deitu behar da Hego Euskal Herrian, Galizian eta Katalunian

Beharrezkoa da kapitulazio berri hori ozen eta argi salatzea, eta klaseko sindikalismo borrokariaren eskutik gure oposizio osoa planteatzea.

Hego Euskal Herrian urtarilaren 30ean mobilizazio jendetsuak egin ziren patronalaren neurriaren egindako Lan Erreforma honen aurka, hainbat langile gatazken presentzia nabarmenarekin. Galizian eta Katalunian ere egin dira eta otsailaren 3an legebiltzarren aurrean elkarretaratze bateratua egin zen. Beharrezkoa da lege honen aurkako borrokak urteetan pairatu dugun funtsezko eskubideen aurkako erasoaren benetan indargabetzeko gai izango den dimentsioa eta irmotasuna hartzea.

Enpresa eta lantegietan asanblada kanpaina zabala bultzatu behar da dagoeneko, langileek bizkar prestatu dena salatzeko, eta erreforma horren aurka aurrez aurre agertu diren indar sindikalak dauden lurraldeetan, mahaian ukabildakada bat eman eta greba orokorrera deitzeko unea da.

ELAk eta LABek Hego Euskal Herrian, CIGek Galizian edo IACK, CGTk, CSCk eta COSek Katalunian, aukera dute erreforma horren aurka eta CCOO eta UGTren bulegoen eta moketaren sindikalismoaren aurka borrokatzeko alternatiba sindikal bat bultzatzeko. PPren Lan Erreforma erabat indargabetzea eskatzeko greba orokorretarako deialdia egiteak jarraipen oso zabala izango luke lurralde hauetan, eta Estatu osoko langileentzako borrokaren erreferentzia izango litzateke.

Sindikalismo alternatiboa eraiki behar dugu, demokratikoa eta borrokalaria. Tubacexeko edo Cadizeko metaleko greban ikusi dugun bezala, zailtasunak zailtasun, langile klasearen artean sekulako amorrua eta borrokatzeko prestasuna dago behin borrokari ekiten dionean. Bada garaia antolatzen jarraitzeko eta kaleetan patronalari aurre egiteko. **Patronalarekin edo langile klasearekin!**

ERREZETA

Ilar kremaren tostada arrautza eskalfatuarekin eta urdaiazpiko frijituarekin



Osagaiak

- 100 g ilar
- Patata 1
- 40 g gurin
- 80 g krema gazta
- Gatza
- Piperbeltza
- Arrautza 1
- Ozpina
- 20 g urdaiazpiko
- Olioia
- Ogi xerra txigortua

BERTAKOA
BERTATIK
BASERRI BIZIAK
DENDA BIZIAK
HERRI BIZIAK

Errezeta

1. Egosi ilarrak eta patata. Txikitu pasapuresarekin, gehitu gurina, gazta krema, gatza eta piperbeltza, eta nahastu integratu arte. Lodi geratu behar du.
2. Eskalfatu arrautza eltze batean ur irakinarekin eta ozpin txorrotada batekin 3 minutuz, eta ur hotzeko bol batera erretiratu.
3. Moztu urdaiazpikoa takitotan eta frijitu zartaginean, ukitu kurruskaria emateko.
4. Jarri krema tosatadan, gainean arrautza eskalfatua eta amaitu urdaiazpiko-kurruskariarekin.



ITURRIA: <https://www.cristinaenea.eus/eu/egutegi-jasangarria-2022-errezetak-apirila>

SINOPSISIA

Aurora bere instalazio artistikoari azken ikutuak ematen ari da, bere bizitza betirako aldatuko duen deia jasotzen duenean.

Posible al da gurea ez den lur batean sustrai-tzea? Posible, familia eta aberriaren zama gainean dugula, hegaldi propioari ekitea?

Eta, gau batean, gure bizitzaren norabidea erabaki beharko bagenu?

Esaera zaharrak dioen bezala:

“Atzerrian lurra garratz, hoña ibini egik baratz”.

